



MEMORIA, UNIVERSIDAD DEL PAS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN URREZKO DOMINA JOSE ANGEL IRIBAR KORTAJARENARI EMATEKO

Unibertsitatearen Gobernu Batzarrak 1983ko apirilaren 21ean hartutako erabakiaren arabera, urrezko domina eman ohi du Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak, "erakunde honek bere esker ona adierazi nahi dienenean edozein herrialdetako pertsona fisiko edo juridikoei, pribatu zen publikoei, unibertsitateari eskaini dizkioten zerbitzu apartengatik edota zientzien, letren edo arteen alorrean burutu duten lan nabarmengatik".

Jose Angel Iribar Zarautzekoa da. 1943. urtean jaio zen Makatza baserrian. Baserriko bizitzak eragin handia izan zuen bere garapen pertsonal eta profesionalean. Txikitatik edan zituen euskal baloreak eta gerora bere bizitza profesionalean zehar praktikatu zituen, baita behin ibilbide profesionala amaitutakoan ere.

Bere baserriaren ondoan zegoen hondartzan hasi zen atezain moduan jokatzeko eta bertan bere burua beldur barik lurrera botatzen ikasi zuen. Baserriak, hondartzak eta frontoiak beren nortasunaren garapenean zeresan handia izan zutela esan dezakegu.

Zarautzeko hondartzetatik Athletic Klubera egin zuen jauzi 1962an. Baskonia futbol taldetik fitxatu zuen Athletic-ek, eta [irailaren 23an](#) egin zuen debuta [Malaga Futbol Taldearen](#) aurka.

Athletic futbol taldeko atezain izan zen 1962-1979 urteen artean Jose Angel Iribar Kortajarena, 'Txopo'. Taldearen historian partida gehien jokatu dituen futbolaria da: 614, 18 denboralditan. Ezizena jarri zioten, behinola Baskoniako atezain izandako Etxabek baloiaren bila jauzi egiten ikusi zuenean: "Txopoa dirudi" esan egin zuen eta halaxe geratu da betiko. Bere bihotzeko taldean diotenez, "makal bat, sustraiak bere lurrean sakon dituenak, baina hain garaia eta bikaina, non bere itzala mundu osoan zehar proiektatzen baita" ([Athletic, 2023](#)). Izen handiko profesionala, ez bakarrik gertuko zaleen artean; Euskal Herriko kanpo ere laudorio asko jaso izandakoa eta miretsia; bere izena jarri zioten Asturiasen kale bati.

Futboleko jokatzeari utzi ondoren, Athleticen beheko mailetan hasi zen entrenatzaile eta atezainen entrenatzaile ere izan zen. Athleticen lehen taldea zuzendu zuen 1986-1987 denboraldian 54 partida ofizialetan. Euskal Selekzioa ere zuzendu zuen bi hamarkadatan.

Ziurrenik Athletic Klubeko mito bizirik handienetako bat da. "Txopoa" mundu osoan ezaguna eta miretsia da, baina baita konpromiso sozialaren, nortasun kulturalaren eta etika pertsonalaren erreferente ere. Bere figura kirol-eremutik harago doa eta Euskal Herriaren ikur bihurtzen da, euskal komunitate osoak errespetatzen duena. Komunitatearen aniztasunetik abiatuta, euskal herritarrek guztiontzako erreferentzia dela aitortzen diote Irribarrerri, txikienetatik zaharrenetaraino.

Eta miresmen horretatik ere sortu ziren Eduardo Chillidaren eskuak, Iribar atezainaren eskuak irudikatzen zituen margolana, omenaldi partida iragartzeko baliatu ziren kartelean jasotakoak. "Atezainaren esku metaforikoak, atezain ohi batek eginak", idatzi zuen Iñaki Sarriugartek ([2013](#)). Eskuak izan zituztelako biek ala biek lanabes eta Galder Reguerak ([2022](#)) idatzi moduan, "infinetua eusten" duten eskuak irudikatu zituen Chillidak, "esku latz eta babesleak, kolektiboaren zerbitzura" jarri zituenak Iribarrek.

Mitotik harago, eta zurigorri izan ala ez, bere taldea, eta kirola bera, gainditu duen ikur bilakatu da Iribar Kortajarena. Are, ia ezinezkoa den arren kirolaria eta kirola bereiztea, gainetik gailendu da urte hauetan guztietan Euskal Herriarekin eta euskararekin erakutsitako maitasuna eta konpromisoa.

Askotan erakutsi du bere konpromiso soziala. Baina, behar bada, 1976ko abenduan Atotxan Realaren aurkako partidari gertatu zena da gure iruditerian gelditu dena betiko. Kortabarriak, Errealaren kapitainak, eta berak ikurrina atera zuten zelaira eta erdiko biribilean utzi zuten erakusgai. Franco hil ondoren, Euskal Herriko ikurrina jendearen aurrean erakusten zen lehenengo aldia izan zen; artean ikurrina legala ez zela.

Bere agurreko partidari. "31n denok santimami-ra / iribar-ekin batera / bai euskarari es-atera", lelopean jokatu zen, 1980ko maiatzaren 31n, Athleticen eta Realaren arteko lagunarteko partida. Batutako diru guztia UZEIri eskaini zion Kirolkidea euskarazko futbol hiztegi bat sortzeko. Iribarrek berak azaldu izan du kirolari esker hainbeste jaso izana eskertu nahi izan zuela eta horregatik erabaki zuela baliatzea omenaldiko diru hura hiztegia sustatzeko ([Eusko Ikaskuntza, 2008](#)). "Kirol kazetari hainbatek izan du lanerako tresna hiztegi hori, han jasota baitaude kirol arloko hitz asko eta asko. Hiztegi hori betiko dago, noiznahi kontsultatzeko era daukazu" ([Administrazioa Euskaraz, 122](#)), kontatu zion Mikel A. Elustondori elkarrizketa batean.

Euskararen alde egiteko egoki iritzi zion kirola, futbola, baliatzea Iribarrek eta 1999an Korrikaren 11. edizioan omendua izan bazen, 2005eko maiatzaren 17an Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako Ohorezko Intsignia eman zion, euskara eta kirola lotzen egindako ahaleginagatik.



Bide horretan inplikatura segitzen du Athleticen Fundazioaren baitan euskara sustatzeko antolatutako ekimenetan parte hartzen, beti ere, euskararen erabilera sustatzeko gaztetxoenen artean.

Izan ere, Iribarrek kirola balore-eskola gisa sustatzen lagundu du etengabe; batez ere, gazteen artean. Entrenatzaile eta aholkulari gisa egindako lanean, hainbat printzipio txertatu ditu; hala nola, talde-lana, pertseberantzia, errespetua eta ahalegina. Sustraiak eta baloreak dituen erakundea den aldetik, Athletic Klubarekin duen konpromisoa hautsezina izan da, bertakoan errotuta, baina mundura irekita dagoen nortasun kolektiboaren garrantzia islatuz.

Jose Angel Iribarren bizitza koherentziaren adibide da, esatearen eta egitearen artean. Egunero argi erakutsi du bikaintasun profesionala ez doala gizartearekiko konpromisoaren aurka. Izan ere, erakutsi du Iribarrek posible dela handia izatea umiltasuna galdu gabe, sinboloa izatea pertsona jatorra izateari utzi gabe.

Iribar futbolaria izaten hasi zen futbola oraindik komunitatearen eta erresistentziaren adierazle zenean, konpromisoak kostuak zituenean eta aukeratzeak estrategia bat baino zerbait gehiago esan nahi zuenean.

Umiltasuna, bikaintasun profesionala, euskal gizartearekiko konpromisoa, leialtasuna, pertseberantzia, errespetua, ahalegina, hurbiltasuna, euskaltzalea, futbolari bikaina, hitzeko pertsona, langilea eta bihotz handikoa. Iribarrek jakin du irudikatzen euskaldun izateko modu bat, hiritar izateko modu bat, eta munduan egoteko modu bat.



Iribarrek euskal gizartean utzitako markaren isla Xabier Amuriza bertsolariak omenaldi partidan kantatu zion bertsoak dioen eran:

Goizak gauri irripar,
egunsentian Iribar,
kirolzaleek txalokatua,
izar haina bidar.
Bi esku luze ta gihar,
atxikiz Hego ta Ipar,
Gaur banatua, Euskal Herriak
bildu dezan bihar.

Ondo aukeratu zuen Pedro Mari Goikoetxeak Iribarren omenezko liburuaren izenburua: "Iribar irudia eta eredua".

Eta horregatik guztiagatik Euskal Herriko Unibertsitateko kideok klaustroaren esker ona adierazi nahi diogu Jose Angel Iribarri eta bere baloreak, belaunaldiz belaunaldi, gazteentzat erreferente izan daitezela gure onena egingo dugu unibertsitatearen eremu guztietan, eta horregatik erakutsitako kiroltasunagatik eta herri honekiko eta euskararekiko izan duen konpromisoagatik merezia du EHUren Urrezko Domina.

Leioa, 2025eko uztailak 10

Datu biografikoak

Jose Angel Iribar Kortajarena (Zarautz, 1943ko martxoaren 1ean). Athletic taldeko atezain 18 denboralditan eta Espainiako selekzioarena 49 aldiz (1964-1976). Errege kopa bi (1969 eta 1973), Zamora sari bat eta hainbat bider txapeldunorde Kopan eta Ligan. UEFAREN kopan txapeldunorde 1977an. Azken partida ofiziala 1979ko abenduaren 12an jokatu zuen, San Mamesen, Getxoren aurka, errege koparen bigarren bueltako partida. Emaizak: 7-1. Despedidako omenaldi partida egin zioten San Mamesen 1980ko maiatzaren 31n.